



GRAMATIKAKO ZERTZELADA BATZUK

FRAI BARTOLOMERENGAN

1. Aditz-sintagmako zenbait osagairen erabilera

Gure gramatikako gune zail samarra dugu *ezin*, *ahal*, *behar* ageri diren aditz-sintagmez osaturikoa. Era inpertsonalean datozenean erraza da, baina gainerakoan, joera bat baino gehiago nabari dira idazleen artean; eta euskalki batetik bestera ere bada alderik.

Ezin*, *ahal*, *biar osagai diren aditz-sintagmak gure idazleak nola darabiltzan aztertuko dugu labur-labur.

- ***Ezin*** maiz agertzen da haren testuetan, ***ezin legui*** esamoldea osatuz batez ere; ***ez*** partikula bezala, aditz nagusiaren eta laguntzailearen erdian kokatzen du. Joera hori oso markatua da, baina testuinguru batzuetan perpaus-hasieran kokatzen du, eta orduan aldatu egiten da hurrenkera hori. ***Ezin legui*** bezalako esamoldeetan, partizipioak ***eguin*** izan behar zukeenean, ez du jartzen, ***legui*** horrek bere baitan hartzen baitu hura. ***Ezin*** honek ez du aditz laguntzailearen erabilera eraginik, aditz nagusiak baizik; hau da, aditz nagusia iragankorra bada, laguntzailea ere iragankorra izango da, eta alderantziz. Batzuetan era inpertsonalean agertzen da eta, jakina, aditz laguntzaileak iragangaitza izan behar; halakoetan hurrenkera normala hau da: "ezin da" / "ezin danian"... Ikus ditzagun adibide batzuk:

("Eguin" ez dago agerian) *Baina domeeca ta jai osuetan, pe-caturic eguin ez arren, nai davena **ecin legui** cristinaubac* (Icas. I, 182). // *Gaixoric daguanac, baruric **ezin legui*** (Icas. III, 158).

(Aditz iragangaitza) *Edoceinentzat, edo meza nausitara, ves-peretara edo sermoetara juan ecin dirianentzat, eguinqui-zun santuba ta ona da jai domeequetaraco, Jaungoicuaren dotrinia icastia edo eracustia; gaixuac visiteetia; tristiac conse-letia* (Icas. I, 183). // *Compesau **ecin bada**, damutu biar dau vijotz vijotceti bere pecatu guztiaquin, aldaguijanian compese-taco uste osuagaz* (Icas. III, 278).

(Hurrenkera aldatua) *¡Ah! **Ecin ucatu guinai**, cerubac, eta luu-rrac diadar eguiten daveela* (Icas. III, 63). // ***Ecin acertau eveen** Philisteotarrac, Sansonen Itaune illunac cer esan gura evan, arian da Sansonen beraren Esposiac esan artian* (Icas. III, 204).

(Era inpertsonalean) **Ezin danian**, ez dago eguiquizunic (Icas. III, 158).

(Hurrenkera normala) *Compesoriac aguindu arren, ez dau-canac diruric emon ecin legui* (Icas. III, 158). // *Preso dagua-nac, mezaric entzun ecin legui* (Icas. III, 158).

- **Al**, gure **abal** (*izan / ukar*) nola darabilen ikusiko dugu. Erraz laburtzekoa dela uste dugu: aditz jokatugabeetan **al izan ezkerro** esamoldea ageri da. Gaineroakoan, **albadezi** alegiazko baldintzetakoa izan ezik, ez da agertzen era inpertsonalean; esaterako, ez dugu aurkitzen "eguin al bada" bezalakorik; aditz iragangaitzekin ere ez dugu aurkitu. **Egin**-en forma trinkoekin darabil gehienetan, **albadagui / albadai...** Edota **ba-** hori ga-be **aldaguijala** eta antzeko formak; beraz, subjuntibokoak. Beste batzuetan, **egin + aldaiguna** edo antzeko egitura agertzen da; honek geroaldi kutsua du. Kokapena ezaguna da: aditz nagusiaren eskuinean dator beti:

*Piestara, biguirara, erromedijara, saraura, ta tambolin dantzara, **al izan ezquero**, inos paltau ezdaveenac* (Fuscal-Errijetaco... 203).

Ez litzateque Jaungoicua Jaungoico izango, guzur chiqui bat esan albalegui (Icas. I, 33).

legua bat bidian, edo legua erdijan, edo gueijaguan echeetara artian cer eguin aldaguijeen, amar urteco umiac bere baquijee (Euscal-Errijetaco... 73).

Guztiac gaiti eguin aldaiguna, guztiai zor deutseegu (Icas. I, 92).

*Urtu zaite bada, **albadaizu**, neure vijotz liorra, ceure Jaungoico onaren amodijuan ta ondo esatian, ain Lauba ta Maitegarria dalaco (Icas. I, 53).*

Azken adibide honetan "neure vijotz liorra" dator aposizioan edo bokatiboan. Goraxeago, "¡Oh, neure arimia!" dator... Beraz, ez da beste pertsona bat; zuka hitz egiten dio bere ariamari; bestalde, "urtu zaite" aditz iragangaitza; eta hala ere **albadaizu**, "al" horrek berarekin doan aditza iragankorra izatea eskatzen duelako.

- **Biar**, tradizioaren haritik, laguntzaile iragankorrarekin darabil beti, era inpertsonalean ez darabilenean; horretarako, ez du eraginik aditz nagusia iragankorra edo iragangaitza izanak; **biar** da aditz laguntzailea gobernatzen duena eta ez aditz nagusia. Kokapena eskuarki honelakoa da: *aditz nagusia + biar + aditz laguntzailea*. Ezezko perpausa denean: *aditz nagusia + biar + ez + aditz laguntzailea*. Ez da beti hala, baina joera hori da. Bada Iparraldeko erabileraren airea duenik ere. Ikus ditzagun hiru edo lau adibide:

(Era inpertsonalean) *Ta bata bere eguin biar ez dira (Euscal-Errijetaco... 197).*

*Icasteko juan **biar dogu** eracusten dan lecura, ezpabere secula icasico ezdugu (Icas. I, 9).*

Oraingo ohituraren arabera, agian, honela: *Ikasteko irakasten dan lekura joan behar dogu (...).*

Ondo pobretuba topauco dau Jesus, bai Belenen jaijo biar davenian, ostaturic edo liorperic inoc emon gura ezda, corta batera jaijotera doianian. Ta bai alemanijeen erdijan jaijota, asca baten daguanian (Icas. I, 73).

(Iparraldeko antzera...?) *Ez da asco, cristinaubac, pecatarija ondo compesetaco, pecaturic ez eguitia nai neuque esatia edo pecatubari isteco gogo motel bat artutia. Biar da, compesinoia ona izango bada, ta pecatuba parcatuco bajaco, pecaturic ostera ez eguiteco gogo sendua, ta egulia. Baita zala, ta pirmia bere* (Icas. III, 133).

2. Konparazio-perpausak

Konparazio-perpausetan ugaria dugu. ...*baino* ... -ago ohiko egituraz gainera, ***edu***, ***duin*** darabiltza elementu zenbakarriak erabiliz berdintasunezko konparazio-perpausak eraikitzeko; gaur egun bizkaieraz ohikoa den ***beste*** ez dugu aurkitu behin ere hauen artean. Zenbakarriak ez direnean, ***baixen*** erabiliko du. Modua konparatzen duenean, berriz, ***leguez***, ***moduban***, ***leeche*** (*nausi batec leeche*)... Berezi samarrak dira ***ez***... ***ceinda*** egituraz eraikitzen dituenak. Superlatibo absolutuak ize-nondoa nahiz aditzondoa errepikatuz nahiz maila-adberbioak erabiliz egin ohi ditu. Superlatibo erlatiboak adierazteko ez dugu aurkitu ***alic/aalic*** ... -***en(a)***; ***albait*** ... -***en(a)*** bezalakorik; horien ordez ***aimbat*** ... -***en(a)*** darabil, eta baita ***danic*** ... -***en(a)*** formaz osatutakoak ere. Baina horrelakoetan ez du sekula ere ***eta*** tartean sartzen.

- Desberdintasunezko konparazioak:

Bada escritura sagraduban castigu guichi iracurten dira, erru gogorragoric ta bildurgarrijagoric juzgu gaistuarena baino (Icas. II, 226).

*¿Ez aoz esanda bacarric, ascoc sobreviña pin bategaz esan oi daveen leguez: neu **baino obia** da mundu guztia?* (Icas. II, 228).

*Gogoratu bada, cristinaubac, inor juzgau **baino leenago*** (Icas. II, 229).

*¿Nos oi dira senaille **aguirijaguac** inor deungatzat euquiteco, Jose, Jacoren seme erru baguiaren contra azaldau zirianac **baino**?* (Icas. II, 230).

*Uts eguite atreviduba ta pena andija mereciduten dauena da, cristinaubari Jangoicuac imini deutsan **baino** legue **astunagua** ta carga **andijagua** ipintia (Euscal-Errijetaco... 12).*

*Joco aldi bacochian ogueta amar ducat **baino gueijago** jocatu ezin leguiz (Euscal-Errijetaco... 29-30).*

*¿Ete dira dantzaari oneec Sanson **baino senduago**? ¿David **baino Santubago**? Salomon **baino jaquitunago**? Areec ocasinoe chiquijaguan jausi cirian (Euscal-Errijetaco... 47-48).*

(**Ozta** aditzondoa, konparazio-morfemaz) *Baina gueratu zan [...]gauza oneraco, cristinautza zuceneraco, Jaungoicua ondretaco, gaixotuta, argalduta, macalduta, leen **baino oztago** Jaungoicuaren ta errazoiaren vidiai jarraituten deutseela (Icas. III, 20-21).*

(Erdal kutsuko konparazio-perpausa...?) *¡Oh, ce **obeto** eguin daveen areec, zuc **baino**! (Euscal-Errijetaco... 162).*

(Aditzaren elipsiaz) *Bada zu **deungago**, á**baino** (Icas. II, 234).*

(Egitura desberdina: konparazio-perpausa aurreko esalditik dator, puntuaz banaturik egon arren...) *Deungaro eguin evan Judasec Jesus saldutia. Baina ez evan **obeto** eguin pecatuban comulguetia. Deungaro eguin eveen Judgeubac Jesus illtia. Baina **pozagoric** juan zan Jesus Curutzian illtera, pecatuzco arimara doian **baino** (Icas. III, 232).*

(Elkarrekin erlazioan dauden hitzak: **ceimbat...** **ainbat** / **ain...** **zein**) *Ta **ceimbat** indecencia **gueijago** eguiten deutseen, **ainbat** dago nesquia **pozagoric** labanquerijaren ta lquinquerijaren vitsa darijola (Euscal-Errijetaco... 66). // **Ceimbat** gavaren **urrago**, **aimbat ezainago**, **nasaijago** ta **zatarrago** dantza bacocha (Euscal-Errijetaco... 68). // **Ain** gusto andijagaz berba eguiten deutsa Jangoicuac uretara doian Samariaco emacume pecatarijari, **cein** Isrraelgo Legueguin Aguintari ta Obispuai (Esk. 65).*

*Azerija ollua jaaten **baino pozagoric** dagoz plaza baztar bateti edo bentana zulo bateti dantziari beguira arrastegui guztian cansau bagaric (Euscal-Errijetaco... 69).*

- Berdintasunezko konparazioak, zenbakarriekin (**duina, edu**):

*Ta ez dauca inoc cetan pensau, cristinaubac baquijeela salbeetaco **duina** dotrina (Icas. I, 8).*

*Bere semiac castigau ez citubalaco biar zan **duina**, Jaungoicuac ill evan Eli seme bijaquin (Icas. I, 197).*

*Bada ardauac ecarten badau guizona nai emacumia, edanda eguanian cer esan evan edo cer eguin evan vijamonian gomutau ezin dan **edura**; besteetan eguin ez oi dituban zoraquerijac edo gaistoquerijac eguitera; gauza onac ta charrac bere burubagaz ta errazoiagaz garbitu ta erabagui ezin dituban **duinara** (Icas. I, 272-273).*

*Noberac daquijala ta ezaututen davela, (leenago sarritan jazo jacolaco) bere guraz esan dirian tertcijuetati batera nai beste batera, bere errazoa edo gorputza ecarteco **duina** ardao edaten davenac, eguiten davela pecatu mortala edo illgarrija (Icas. I, 274).*

*Ez Ceruco Aingeru guztiac, ez Patriarca ta Propeta guztiac, ez Apostolu ta beste arima on guztiac bat eguinda bere, ezin euqueen ta ezin leguije, gueuri pecatubac parcatuteco ta gracia emoteco **duinaco** Sacramentu bat (Icas. III, 8).*

*Ascotan gurasuac eguiten ditubee gauza batzuc, gach uste bagaric, celan ez daquijela ta jaquin biar leuqueela, saheleco seinari vizitzia quenduteco **duinacuac** (Icas. III, 53).*

*...ya damutu zan edo ez, pecatubaren parcacinoia jadisteco **duinaan**? (Icas. III, 104).*

*Ezautu biar zirian edo ez: ala pecaturaco **duina** ezaubera eguan edo ez, au da dudia (Icas. III, 168).*

*ta areetati asco, salbeetaco **duina** dotrina ez daquienac (Eascal-Errijetaco... 136).*

(Korrelaziozko konparazioetan, "tantos ... como ..." egitura dutenetan, maiz agertzen da partitiboa) "*Ya dagoz dantza atan guizonezcoric* **edu** emacume, edo mutilic **edu** nesca (Eascal-Errejetaco... 66).

*Aita **edu** eguindaco seme alabac dagoz asco, dotrinaric bapere sustancijaz ez daquienac (Esk. 216).*

*Orregaiti meza bacochac balijo dau, Jesusen Calvarioco erijotziac berac **edu** (Icas. I, 163).*

*Ceure arimia **edu** costa jacon Jesus maitiari (Icas. I, 250).*

*Elisaco Batzaar ta Jaquitun Nausijen ondo esatez jantzita, jasota dago, besteric ez **eduban** (Icas. II, II).*

*Mundubac daucan **edu** zabalera daуча pecatubac berac (Icas. II, 15).*

*Impernuraguinoco sustraijac daucaz. Munduba **edu** zabalda. Guizaaldi guztiac **edu** luzetuten da (Icas. II, 17).*

*¿Izan da arri gaistoric, edo elementuric prancesac **edu** negar errijetan eraguin davenic? (Icas. II, 53).*

*Lagun bi edo iru alcarregana batu ezquiero, verba aldi guichi izaten dira lagunari guichi edo asco ondran icutu bagaric. Eurac gaiti inoc esatia guraco ez leuqueen **edu**, norbait gaiti esan bagaric (Icas. II, 192).*

*Bada ac **edu** pecatu edo guejago zuc eguiten dozu, ceuc proximua gaiti deungaroric esan ez arren (Icas. II, 195).*

*Pobreen arimac bere costa jacozan Jaungoicuari, aberatse-nac **edu** (Icas. III, 60).*

*Dira andi guria, ondasun guria, gorputzaren gusto guria, lagunac bera **edutzat** ez euquitia (Icas. III, 72).*

*Mecia entzutera juateco **edu**, prestetan diriala compesetara juateco (Icas. III, 117).*

*Oneec eta beste contau ezin guinaizan **educ**, ezcontzaco estaduban jadichi eveen Santu izatia ta Eleisa Ama Santiac Altaretan iminita ondretia (Icas. III, 323).*

*Zorroztu, dino, miina, sierpiarena **baixen** zorroz eguin arrtian, sicut serpentis (Icas. II, 205).*

*Ta basoco loria **baixen** galduorra dala munduko dicha ta atseguien guztia (Icas. II, 290).*

*Ta eurac uste davee Ainguerubac **baixen** garbi dagozala (Eascal-Errijetaco... 183).*

- Konparazio-perpaus berezi samarrak (... **ceinda** ...):

*Baina ez dira aimbeste cristinau guztiai jagocazenac, **ceinda** Eleisa guizonai (Icas. III, 110).*

*¿Nor izango da bada ain zorua, **ceinda** bere pecatubac guztiac compesauco ez dituban? (Icas. III, 142).*

*Ama on batec alaba bacar bat ezin artu lei vijozi **bigunauagaz**, ta maitetasun **andijauagaz**, **ceinda** Jangoicuac artxeen dituban ta trateetan dituban bere adisquidiac (Esk. 86).*

- Superlatibo erlatiboak (**aimbat** ... **-en(a)** / **danic** ... **-en(a)**):

*Ez da nire gogua sail au luzatutia. Ezbada **aimbat laburren** ta **arguiruen** imintia (Eascal-Errijetaco... 88).*

*Prestau egizu, cristinaubac, entzutia **aimbat** gogoric **zurre-nagaz** (Icas. II, 24).*

*Entzun eguidazu **aimbat gogoric** oneenagaz (Icas. II, 138).*

*Baina entzun dozu, **danic** guzurric **chicarrena** bere peca-tu dala (Icas. II, 179).*

*Nai ta ez lotsatuco da, **danic lotsa galducuena** bere (Icas. II, 201).*

Luis Baraiazarra